

IDENTITATEAREN  
ERALDATZEA SUBJEKTU  
LITERARIO POSTMODERNOAN



# IDENTITATEAREN ERALDATZEA SUBJETU LITERARIO POSTMODERNOAN

Iratxe Esparza Martin

omai ta zabal zaku



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

CIP. *Unibertsitateko Biblioteka*

**Esparza Martin, Iratxe**

Identitatearen eraldatzea subjektu literario postmodernoa / Iratxe Esparza Martin. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2019. – 206 p. ; 22 cm. – (Euskal Literatura Saila ; 19)

Bibliografía : p. 191-206

D.L.: BI-997-2019. — ISBN: 978-84-1319-065-5

1. Literatura vasca – Siglo XXI. 2. Identidad. 3. Rozas, Ixiar, 1972-, – Crítica e interpretación. 4. Cano, Harkaitz, 1975-, – Crítica e interpretación. 5. Rodríguez, Eider, 1977-, – Crítica e interpretación.

891.69.09 “20”

Euskal Literatura Saila bildumaren zuzendaria: JON KORTAZAR

Liburu hau Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen Ikerketa Taldeen Sarean kokaturik dagoen (IT 1397-19) eta Euskal Herriko Unibertsitateak onartu duen LAIDA (PPGA 19/27) Ikerketa Taldearen eginkizunen barnean egin da.

Azaleko irudia: Susana Jodra Llorente

Hizkuntza-orrasketa: UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak lagundutako liburua.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua  
Euskal Literatura Saila bildumaren ISBN: 978-84-9860-730-7

ISBN: 978-84-1319-065-5

Lege gordailua: BI-997-2019

# AURKIBIDEA

|                                                                                                             |     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| <i>Aitzinsolasa</i> . . . . .                                                                               | 11  |
| 1. <i>Postmodernitatearen zenbait ikuspegi eta kontzeptuen azalpena</i> . .                                 | 13  |
| 2. <i>Postmodernismoa euskal literatura garaikidean</i> . . . . .                                           | 21  |
| 3. <i>Pertsonaien identitatea semiotika literarioan</i> . . . . .                                           | 29  |
| 4. <i>Identitatearen auzia euskal literaturaren barnean</i> . . . . .                                       | 33  |
| 5. <i>Identitatearen aniztasuna eta ahotsen berreskuratzea: Ixiar Rozas</i> . .                             | 43  |
| 5.1. <i>Biografia eta lanak</i> . . . . .                                                                   | 44  |
| 5.2. <i>Erresistentzia postmodernismoa: Periferiak, Gau bakar bat (2004) eta Negutegia (2006)</i> . . . . . | 45  |
| 5.2.1. <i>Artearekin lotura duen ekintza kritikoa: Periferiak</i> . .                                       | 49  |
| 5.2.2. <i>Gau bakar bat (2004): estetika postmodernistaren adierazgarria</i> . . . . .                      | 52  |
| 5.2.3. <i>Negutegia (2006): aniztasunetik eraikitako identitate postmodernoa</i> . . . . .                  | 58  |
| 5.2.3.1. <i>Mugimenduan dagoen literatura</i> . . . . .                                                     | 59  |
| 5.2.3.2. <i>Hiri postmodernoen itzala</i> . . . . .                                                         | 66  |
| 5.2.3.3. <i>Pertsonaien identitatearen krisia</i> . . . . .                                                 | 76  |
| 5.2.4. <i>beltzuria (2014): identitatea iradokitzen ahotsak berreskuratuz</i> . . . . .                     | 79  |
| 5.2.4.1. <i>Testuaren identitaterantz</i> . . . . .                                                         | 80  |
| 5.2.4.2. <i>Denbora anakronikoa eta denbora erreala</i> . .                                                 | 87  |
| 5.2.4.3. <i>Hitz egiten duen ahotsa</i> . . . . .                                                           | 89  |
| 6. <i>Identitatearen zatiketa eta testuartekotasuna: Harkaitz Cano</i> . . .                                | 95  |
| 6.1. <i>Biografia eta lanak</i> . . . . .                                                                   | 95  |
| 6.2. <i>Testuartekotasunaren presentzia obraren sorkuntzan</i> . . . .                                      | 99  |
| 6.3. <i>Belarraren ahoa (2004)</i> . . . . .                                                                | 103 |
| 6.3.1. <i>Belarraren ahoa, narrazioa</i> . . . . .                                                          | 104 |
| 6.3.2. <i>Belarraren ahoa, eleberri laburraren ertzetan</i> . . . .                                         | 105 |
| 6.3.3. <i>Historiaren eraldatzea istorioa idatziz</i> . . . . .                                             | 107 |

|                                                                                                                                         |     |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 6.4. <i>Twist</i> (2011), izaki intermitenteak . . . . .                                                                                | 109 |
| 6.4.1. Egitura identitatearen sinboloa . . . . .                                                                                        | 111 |
| 6.4.1.1. Cambalache, 1983 . . . . .                                                                                                     | 112 |
| 6.4.1.2. Lehen difuminazioak . . . . .                                                                                                  | 116 |
| 6.4.1.3. <i>Legis silva</i> . . . . .                                                                                                   | 117 |
| 6.4.1.4. <i>Harien hari</i> . . . . .                                                                                                   | 118 |
| 6.4.1.5. <i>Paper Requiem</i> . . . . .                                                                                                 | 118 |
| 6.4.1.6. <i>Ready-made</i> . . . . .                                                                                                    | 119 |
| 6.4.1.7. <i>Urpeko munduak</i> . . . . .                                                                                                | 120 |
| 6.4.1.8. <i>Hiru lagunak</i> . . . . .                                                                                                  | 121 |
| 6.4.2. Identitatearen auzia . . . . .                                                                                                   | 121 |
| 6.4.2.1. Diego Lazkanoren aldakortasuna . . . . .                                                                                       | 122 |
| 6.4.2.2. Roberto Bolaño eta obraren zatiketa . . . . .                                                                                  | 127 |
| 6.4.2.3. Paul Auster, zoriaren maisua . . . . .                                                                                         | 129 |
| 6.4.2.4. Jorge Luis Borges, ispiluen artean jolasean . . . . .                                                                          | 133 |
| 7. <i>Generoaren identitatea eta gorputz ibilbideak: Eider Rodriguezen narrazio gintza</i> . . . . .                                    | 141 |
| 7.1. Biografia eta lanak . . . . .                                                                                                      | 142 |
| 7.2. Euskal emakumezko idazleei buruzko zenbait ohar. . . . .                                                                           | 143 |
| 7.2.1. Emakumeek emakumezko idazleen lanen inguruan egindako ikerketak . . . . .                                                        | 144 |
| 7.2.2. xxi. mendeko hasierako euskal emakumezko idazleen literatura . . . . .                                                           | 146 |
| 7.2.3. Idazkera femeninoaren eredu biologikoa, linguistikoa, psikoanalitikoa eta kulturala . . . . .                                    | 148 |
| 7.2.4. Idazkera femininotik ihesean . . . . .                                                                                           | 150 |
| 7.3. <i>Eta handik gutxira gaur</i> (2004), <i>Haragia</i> (2007) eta <i>Katu jendea</i> (2010): hiru liburu batera irakurrita. . . . . | 152 |
| 7.3.1. <i>Eta handik gutxira gaur</i> (2004) . . . . .                                                                                  | 153 |
| 7.3.2. <i>Haragia</i> (2007) . . . . .                                                                                                  | 160 |
| 7.3.3. <i>Katu jendea</i> (2010) . . . . .                                                                                              | 165 |
| 7.4. Emakumezko protagonistak semiotika feministaren erai-kuntzan . . . . .                                                             | 168 |
| 7.4.1. Genero identitatearen auzia Eider Rodriguezen ipuingintzan . . . . .                                                             | 169 |
| 7.4.2. Hitzarmen sozialak eta heteronormatibitatea . . . . .                                                                            | 173 |
| 7.4.3. Emakumearen gorputza: amatasuna, edertasuna, sexua eta bortizkeria . . . . .                                                     | 179 |
| 8. <i>Ondorioak</i> . . . . .                                                                                                           | 183 |
| 9. <i>Bibliografia</i> . . . . .                                                                                                        | 191 |

Literatura, literaturaren historiako gauza da ala herriaren gauza? Literaturaren historiarako idazten duenaren eskuak garbiak dira, berak baino ez du idazten, baina literatura txikietako enuntziazioa kolektiboa da. Literatura handietan maisuak daude, idazle handiak. Literatura txikietan idazle handi gutxi dago eta, era batean edo bestean, idazlea elkarlanean ari da. Herriak ez ditu eskuak garbirik izango, baina eskuak ditu behintzat. Idazleak literatura txikian idazten eta egiten duena politikoa da berez, eta denei dagokie.

*Moroak gara behelaino artean?* (2010)  
Joseba Sarrionandia



## AITZINSOLASA

Azken hamarkadetan ugari izan dira gizartean gauzatutako al-daketak, zalantzarik gabe, XXI. mendeko euskal narratiban eragin zuzena izan dutenak. Hori dela eta, datozen orrialdeetan euskal gi-zartean zein euskal literaturan postmodernismoaren eta postmo-dernitatearen inguruan piztutako eztabaidak agerian utziko ditugu. Izan ere, gizarte postmodernoaren sorrera aldaketa ekonomiko, po-litiko eta kulturalen isla da, eta, ondorioz, euskal literaturan hainbat sormen postmodernista ere aipagarriak dira, hau da, gizartean ger-tatutakoek literaturan eta artean izandako oihartzuna. Horretarako, narrazio literarioen pertsonaiei erreparatzen diegu, haiek erreality-tearen isla baitira eta, halaber, baliagarriak testuetan esanguratsua den identitatearen eraldatzeaz ohartarazteko. Ondorioz, narrazioko subjektu postmodernoaren agerpenak izango du lehentasuna, eta, identitatearen aldaketez hausnartzeaz gain, azken urteetako obretan pertsonaia postmodernoa gizarteak pairatutako eraldatzearen lekuko ere bihurtu dela ondorioztatuko dugu.

Beraz, pertsonaien semiotika ardaztat hartuta, euskal literatu-ran hitz egiterakoan Ilustrazioko subjektuaren, subjektu soziologi-koaren eta subjektu postmodernoaren (Hall, 1992) arteko banaketa egitea proposatzen da, nahiz eta azkena izan gure arreta bereganatuko duena. Hori dela eta, testu narratiboetan subjektu postmodernoa nola gorpuzten den aztertzeke, erdigunean jarriko ditugu Ixiar Ro-zasen *Gaur bakar bat* (2004), *Negutegia* (2006) eta *beltzuria* (2014) lanak; Harkaitz Canoren *Belarraren ahoa* (2004) eta *Twist* (2011) eleberriak eta Eider Rodriguezen *Eta handik gutxira gaur* (2004), *Ha-ragia* (2007) eta *Katu jendea* (2010) narrazio bildumak. Aipatutako obrek lagin bat osatzen dutela jakitun, gaur eguneko identitate litera-rioak erakusten dituen askotariko alde eta aurpegiak berri ematea da asmoa, identitatearen aniztasuna eta heterogeneotasuna, zatiketa eta hibridazioa azpimarratuz, genero identitatea ahaztu gabe.



# 1. Postmodernitatearen zenbait ikuspegi eta kontzeptuen azalpena

Lehenengo eta behin, bizi dugun egoera berriaren zenbait zertzelada ezagutu behar dira artean eta literaturan agertu diren joerak zehaztasunez aztertzeko. Postmodernismoa korronte artistiko eta estetiko da, postmodernitatearen ondorio zuzena, eta, adituen arabera, 70eko hamarkadatik hona, arteari dagokionez, mendebaldeko herrialdeetan azaldu den bereizgarririk esanguratsuenetariko bat. Postmodernismoa, beraz, kulturari eta estetikari dagokie, hau da, garaiko filosofia, teoria kritiko, literatura eta arteari. Postmodernitateak, ordea, ekonomia- eta gizarte-arloa besarkatzen ditu, eta terminoa aldaketa berria izendatzeko erabiltzen da. Postmodernismoaz hitz egitean, nahitaezkoa da gogoratzea mendebaldeko gizarteek kulturaren arloan izandako eraldatzea. Andreas Huyssenekin (1998) bat gatoz aipatzen duenean paradigmen aldaketaz mintzatzea gehiegizkoa dela, ahaztu gabe, noski, bai kulturaren, ekonomian eta gizartearen gauzatzen ari diren aldaketa sakonak; era berean, postmodernitateari munduaren ikuskera berri baten tratamendua emango diogu. Mendebaldeko gizarteetako egoera berriaz hausnartzean, teorikoek eta adituek hainbat termino erabiltzen dituzte: Gilles Lipovetskyk (1986, 2006, 2013) Hipermodernitatea aipatzen du, Zygmunt Baumanek (1993, 1996, 2006, 2007) Modernitate Likidua eta Ulrich Beckek (1998, 2004) Bigarren Modernitatea. Zenbatezina dira muturreko iritziak adierazten dituzten lanak eta saiakerak; alabaina, horiek guztiek bi alderdi komun aipatu ohi dituzte: subjektuaren zatiketa eta Modernitatearen Egitasmoan gorengo adierazpena zeuzkan baloreen deuseztatzea. Bereizgarri horietan zentratuko gara euskal literatura-hausnarketa hau burutzerakoan.

Arrazoa, askatasun indibiduala eta aurrerapenari begira zegoen aldaketa izan ziren modernitatearen zutaberik garrantzitsuenak; hala ere, denborak aurrera egin ahala, modernitatean eraikitako egitasmo unibertsala krisian sartu eta gizarte-antolamendua guztiz eraldatzen da. Gizarte eraketa berriak oihartzun garbia dakar arlo kulturallean, hala nola ahultasuna, zehaztugabetasuna eta teknologia berrien agerpena. Bizi baldintza berriek gure subjektibitatea aldarazten duten bitartean, etengabeko informazio birtualak kontinenteak zeharkatzen ditu; zalantzez betetako etorkizun baten aurrean gaudela eta mugimenduaren jarioasuna geldiezina dela ohartzen gara; denbora kulturallean mitoak eta sinboloak aldakor azaltzen dira, eta gizarte-irudimena labainkorra da. Gorputzaren denboran gaztetasuna zoriontasunaren ikur bihurtzen da eta ziberespazioaren eta zibermunduen denborak azkartasunez gozatzeko grina dakarte, non hemengo eta oraingo beharrak gailentzen gaituen. Horri guztiari aurre egiteko, oraina da dugun bakarra, momentuaren bat-batekotasuna.

Hamaika dira postmodernitateari buruzko eztabaida piztu eta jarraitu duten herrialde guztietako adituak. Kritika literarioan, mugimendu modernistaren neurritasuna salatzeako asmoz, Irving Howe (1959) eta Harry Levine (1960) erabili zuten postmodernismoaren kontzeptua 50eko hamarkadaren amaieran. Terminoa, ordea, 60ko hamarkadan agertu zen indarrez zenbait kritiko literarioen eskutik (Fiedler, 1964; Hassan, 1982); horiek muturreko iritziak eman zituzten literatura postmodernista definitzeko orduan. Angloamerikararren testuinguruan, Hassanen teorizazioez gain, ezin dira ahaztu Brian McHale (1992), Linda Hutcheon (1989) eta Fredric Jamesonenak (1991, 2001). Hassan eta McHale estetikoia dena edozein esparrutatik desberdintzen saiatzen diren bitartean, Jamesonek eta Hutcheonek jarrera historizistaren alde egin eta postmodernismoa eremu literariotik harago kokatzen dute gizarte arloan dauden beste diskurtsorekin lotuz. 70eko hamarkadan, kontzeptuaren hedapena areagotu egin zen, lehenbizi arkitekturari; denborarekin dantzari, antzerkian, pinturan, zineman eta musikan. Arkitektura joeretan argi geratu zen modernismoarekiko haustura, baina literaturan zailagoa izan zen haustura hori egiaztatzea. 70eko hamarkadaren amaieran, AEBtik Europaraino zabaldutako ziren postmodernismoari buruzko eztabaidak. 80ko hamarkadan, modernismoa eta postmodernismoa arteetan, eta modernitatea eta postmodernitatea giza teorian, mendealdeko gizarteetako eremu intelektualen zirkuituetatik sartu ziren, eta horrekin batera, estilo berri baten aurrean egongo ote ginatekeen hausnarketak eta zalantzak.

Asko dira postmodernitatea definitzen edo zenbait parametro finkoren barruan sartzen saiatzen direnak. Alabaina, oso zaila da ezaugarritzea arbitrariotasun gutxiko egoera; batez ere, artean eta literaturan, postmodernismoak mundu ikuskeraren ludikotasun joera bermatzen baitu, eta arrazoian oinarritutako azalpenak baztertzen dituelako. Adituek egiten dituzten hausnarketek eta literaturaren eta bizitzaren arteko lotura onartzeak Ixiar Rozasen, Harkaitz Canoren eta Eider Rodriguezen obrak ikuspuntu soziologiko batetik ulertzera eramaten gaituzte, lanek literaturaren eta soziologiaren arteko kideetasuna agerian uzten baitute. Jakina da gizartearen eta kulturaren, edo soziologiaren eta literaturaren arteko harreman estua sailhestezina dela, bi arloetan gizarte-errealitatea islatzeaz gain, sarritan, elkar eragiten baitute. Soziologoek gizarte postmodernoareneko egoera berrian gauzatzen ari diren aldaketak sozialak aztertzen badituzte, idazleek mundu imajinario bat sortzen dute; kasu honetan, gizarte aldaketak norbanakoak izandako eraldaketetan islatzen dira. Idazleak eta soziologoak, beraz, errealitatea ezartzeko kuriositate bera konpartitzen dute: lehenengoak sorkuntza literarioetan islatzen du errealitatea; bigarrenak, bere lan zientifikoetan (Martínez Sahuquillo, 1998).

Jean-François Lyotardek (1986) gizarte garatuenetako «jakintzaren izaera» aipatu zuen eta izaera horri izaera postmodernoa deitu zion. XIX. mendetik aurrera zientziak, literaturak, eta oro har, artearen arauetako aldaketen ondorioz, izaera postmodernoa kulturaren egoera izendatzeko erabiltzen du. Beraren iritziz, 50eko hamarkadaren amaieran, egoera postmoderno hasi berriak metadiskurtsoen (metakontaeren)<sup>1</sup> sinetsaiztasuna islatu zuen sistemaren jakintzaren arauetan edo estatusean eta aldibereko moldaketa ekarri zuen: bate-tik, gizartea aro postindustrialean sartu zen, eta, bestetik, kultura aro

---

<sup>1</sup> *La condición posmoderna* (1986) saiakeran, Lyotardek aipatzen dituen metakontaeak ereduak ezartzen dute modernitatean: «emancipación progresiva de la razón y de la libertad, emancipación progresiva o catastrófica del trabajo (fuente de valor alienado en el capitalismo), enriquecimiento de toda la humanidad a través del progreso de la tecnociencia capitalista, e incluso, si se cuenta al cristianismo dentro de la modernidad (opuesto, por lo tanto, al clasicismo antiguo), salvación de las criaturas por medio de la salvación de las almas [...]» (Lyotard, 1987: 29). Kontaeren helburua da instituzioak eta eginkizun sozialak eta politikoak, legegintza, etika eta pentsamoldea legitimatzea. Hala ere, legitimitatea etorkizunean bilatzen dute, hau da, burutu behar den «Ideia» batean. Ideia horrek, halaber, unibertsalitatez, balio egiaztagarria dauka. Horren ondorioz, Ideiak giza-errealitateak bideratzen ditu modernitateari bere tasun bereizgarria emanez: «egitasmoa»; egitasmo modernoa (*ibid.*, 29-30).

postmodernoan. Ezin da ahaztu aldaketa teknologikoek jakintzan izan zuten eragina eta horren ondorioz ezagutzaren transmisioaren baldintzapena. Era berean, sare handi horretan, antzinako printzipio garrantzitsu bat bertan behera utzi zen, hots, duela urte batzuk jakintzaren jabetze prozesua espirituaren eraketaren parte zatiezina bazen (*Bildung*)<sup>2</sup>, postmodernitatean printzipio horren oinarria desagertuz doa. Egileak, jakintza saltzeko asmoz, sortzen hasi ziren, eta, ondorioz, jakintzaren merkantilismoaz hitz egiteko ordua heldu zen. Jakintza trukera bideratzeak haren helburu eta esentziaren galera ekarri zuen, eta, aldi berean, jakintza boterea lortzeko tresna bihurtzeak informazioa menderagarri eta maneigarri bihurtu zuen.

Mendebaldeko ikuspuntutik, jakintza bat dator zientziaren, etikaren eta politikaren artean sortutako loturatik; hortik zientziaren legitimitateak eta onarpenak boterea eraikitzen duen legitimitatearekin erlazio estua izatea. Halaber, mendebaldeko gizartearen, herrialdeak ez daude jadanik politikarien menpe, enpresarien eta goi mailako funtzionarioen aginduaren pean baizik. Lyotarden esanetan, legitimitatearen exijentziak inperialismo kulturala menperatzen du; paradoxikoki, jakintza zientifikoa jakintza narratiboaren bidez hedatzen da, hots, kontaeren bidez, eta horrela jakintza zientifikoa legitimitatea lortzen du. Zientzia modernoaren legitimitatearen muina bi metakontaera (metadiskurtso) handitan oinarritu zen; batetik, Frantziako Iraultzako ondorengo jakintzaren aurrerapenean, eta, bestetik, Alemaniako idealismoan, izpirituaren egiaren hedapenean. Baina gizarte postindustrialean metakontaeren sinesgaitza azaleratzen da: (i) kapitalismoaren garapenaren eta komunismoaren arteko aukeraren bazterketa gertatzen da; (ii) teknologien aurrerapenak gizakiaren zerbitzura jarri beharrean, gizakia teknozientziako aurrerapenetara moldatu behar da; (iii) historiaren gertaerek deslegitimitatea eta nihilismoa eragiten dituzte. Beraz, diskurtso handiak alboratzeaz gain, aldaketa sakona jasaten du garaiko gizarteak. Gizarte-antolamendua guztiz eraldatzen da; gizarte osatzen duten kolektiboaren arteko lotura urtu egiten da, eta, horren ondorioz, balore kolektiboak nagusitzen diren gizarte batetik balore indibidualistek osatzen duten beste gizarte batera igarotzen da.

Bestalde, postmodernitatearen pentsamenduaren ikuspuntu eszeptikoa Jean Baudrillardek (1996) islatzen du. Haren ustez, garai postmodernoetan artearen eta errealitatearen arteko muga desegi-

---

<sup>2</sup> Artearen eta jakintzaren bidez, gizatasunaren goiko maila lortzeko helburuarekin norbanakoaren etengabeko eraikuntza kontzientea (ik. Sanchez Meca: 1993).

ten da, eta biak ala biak simulakro unibertsal batean kolapsatu egiten dira. Simulakro kontzeptua, irudiaren azkenengo fasea izango balitz bezala ulertzen du, hau da, simulakroa gertatzen da irudiak berak bere erreferentea deuseztatzen duenean, irudikapenaren eta errealtatearen arteko desberdintasuna deseraikitzean eta erreala den munduan zeinuen eta beraien erreferentziaren arteko ezberdintasuna apurtzen duenean. Izan ere, Baudrillardek ikertzen du zein erlazio mota ezartzen duten irudiek eta zeinuek aro garaikidearekin; sinboloen eta zeinuen esanahiak errealtatea ordezkatzuz gero, giza esperientzia errealtatearen simulazio bihurtzen da. Kulturaren eta komunikabideen esanahiak eta sinbolismoa sortu ondoren, simulakro horiek dira gizakiok hautematen dugun errealtatea; bizimodua simulakroz eta eraikuntza sinbolikoz beteta dago; horregatik, esanahiaren aldakortasunaren ondorioz, kasu gehienetan, esanahiak berak zentzua galtzen du. Dena bere itxuraren pean ezkutatzearen ondorioa da munduaren irudipen materiala. Irudikapenak simulazioa xurgatu eta irudikapen faltsutzat interpretatzen duen bitartean, simulazioak irudikapenaren sorkuntza osoa besarkatzen du simulakrotzat hartuz. Simulakroa sor dadin, irudiak lau urrats hauek bete behar ditu: (i) irudia errealtate sakon baten isla da; (ii) irudiak errealtate sakona ezkutatu eta desnaturalizatzen du, eta horrela, irudikatutako errealtatea hutsalduta agertzen da; (iii) irudiak errealtatearen edo egia sakonaren ez-egotea moztortzen du; eta, azkenik, (iv) irudiak errealtatearen edozein forma ukatzeaz gain, ez dauka zerikusirik inolako errealtatearekin, eta bere simulakro bilakatzen da (Baudrillard, 1978: 13-14). Errealtatea, beraz, errealtatetik kanporatuta dago, eta teknologiak bakarrik jarraitzen du errealtaren puska sakabanatuak batzen.

Gauzak horrela, irudikapenak simulazioa ordezkatzeko du, eta errealtatea, erredundante bihurtzean, hipererrealtatean zabaltzen da, non irudiak nahasten diren errealtate edo esanahi bati inolako erreferentziarik egin gabe; masa-komunikabideen interakzioaren ondorioa edo konstruktua izango da hipererrealtatea<sup>3</sup>. Baudrillardek

---

<sup>3</sup> Diferentziak alde batera utzita, Baudrillardek proposatutako hipererrealtatearen teoriak, hein handi batean, Platonen Ideien teoria gogoarazi diezaguke. Platonen ustez, ideiak beraiek existitzeaz gain, irudikatzen dituzten banakotasunetatik banatuta daude. Bi munduren artean desberdintzen zuen Platonek: batetik, zentzumenen mundua dugu, non errealtate partikularrak dauden eta, era berean, ugaritasuna, aldaketa, sorkuntza eta desegitea gertatzen diren; bestetik, mundu adigarria edo ideien mundua aipatzen du, eta hor, errealtate unibertsalak daude eta batasuna, beraz, nagusia da. Ideiak aldaezinak direnez, ez dira aldakorak. Baina, bi mundu horien arteko banaketarekin, ezin dugu ahaztu Platonen haitzuloaren mitoaren eta Baudri-

aro postmodernoari hipererrealitatearen aroa esaten dio, eta garai horren ezaugarri inportantenetariko bat azpimarratzen du bere lanean: espazio publikoaren eta pribatuaren arteko mugak ezabatzea. Hortaz, uler dezakegu Hipererrealitatearen kontzeptua erabat errututa dagoela filosofia postmodernoan: bizi garen mundua kopiaturako mundu batek ordezkutzen du, non estimulu simulatua besterik ez dugun bilatzen. Kontsumismoak gaur egungo gizartea irensiten eta benetakoa dena itoazten du, eta horregatik kopia nagusitzen da; baina, kontsumismoak hipererrealitatea sendotzen lagundu arren, masa-komunikabideek gizartea manipulatzeko eta eraikitzen dute, simulakroaren inperioaren itzalpean bizi garen bitartean.

Beste aditu batzuen ekarpenak xx. mendeko kapitalismo berantiararen pentsamenduan erabakigarriak izan dira azken hamarkadetan gertatutako aldaketa ekonomiko, politiko eta sozialen testuingurua xehetasunez deskribatzen dutenean: David Harveyk (1998) adierazten du ekoizpenak, komertzializazioak, mugikortasun geografikoak, lekualdatzeak, hots, metatze erregimen berria bira kulturalari lotuta, merkatuen erregulazio berri batera daramatela. Ondorioz, 1973tik aurrera fordista-keynesiana deitutako aroa zatitzen da eta garaiko artearen arauak eta estetika menperatzen duten aldaketetan fordismotik metatze malgurako urratsa berebizikoa da. Modernitatean estetika egonkorra zelako ideia zabaltzen zen, postmodernismoan, ordea, estetika ezberdintasunak, espektakuluak eta adierazpen kulturalen merkantilizazioak ezaugarritzen dute. Harveyk ondorioztatzen du horren aurrean fikzio postmodernoak ziurgabetasunaren aroan gertatutako baldintzak mimitizatzen dituela, zalantzarik gabe, horrelako emozioak markatzen dituzten garaiak estetikaren eremuko aldaketetatik historikoki gertu daude. Matei Calinescuk (1991), aldiz, modernismoaren eta postmodernismoaren kontraesan logikoak aipatzen ditu adierazpen artistikoetan abangoardien eta postmodernismoaren arteko ezberdintasunak ezarriz; gainera, postmodernismoaren barruan dauden testu narratiboen izaera ontologikoa azpimarratzen du. Galdera mota hauen inguruan hausnartzen duten testuak ekoizten dira: zeintzuk dira inguratzen gaituzten munduak? Nola eraikitzen dira? Zein estrategiak erabiltzen dira haiek testuetan ager daitezen? etab.

---

Ilarden hipererrealitatearen pentsamenduaren antzekotasuna: haitzuloaren gatibuek objektuaren itzala ikusten duten bezala, guk errealtetetik sortutako irudiak bakarrik igartzen ditugu. Baudrillardaren hipererrealitatean, irudikapenak ordezkaturako simulazioa jasotzen dugu, eta, horren ondorioz, errealtatea desitxuratuta agertzen da.

Alabaina, Zygmunt Bauman soziologoak gizarteari ateratzen dion argazki zehatzean oinarrituko gara testu narratiboen gainean egin-dako irakurketa hobeto argitzeko nahian, subjektu postmodernoaz hitz egiten dugunean, aspaldi mendebaldeko herrialde «garatueta» gertatzen ari diren berritasunek agertoki berriei bidea ematen die-telako pentsamendua interesatzen baitzaigu. Sortutako espazioak ezin aproposak dira indibidualtasuna sendotzeko, eta, era berean, gizarte postmodernoaren espazio bereizgarri bihurtzen dira. Zigmunt Baumanek (2007a: 7-11) egoera postmodernoaren hainbat ezaugarri eta gizartean lehenago ikusi gabeko erronkak aipatzen ditu bere lanean:

- i. Modernitatea fase «solido» batetik fase «likido» batera pasa-tzen da. Egoera horretan estruktura sozialek ezin dute be-ren egitura mantendu horiek onartzeko denbora izan baino lehen desegiten baitira. Horregatik, ez dira jada eredugarriak giza ekintzak eta epe luzerako estrategiak aurrera eramateko.
- ii. Estatuaren boterearen ahultasuna. Modernitatean boterea estatuaren gainbegiratzearen pean baldin bazegoen, post-modernitatean kontrolaezina den espazio globalera lerratzen da. Kontrol politikoaren ezak botere berri emanzipatuak ez-jakintasun sakonen iturri bihurtzen ditu eta, Estatuak aban-donatuak, horiek eta antzeko eginkizunak merkatuaren araudiaren pean geratzen dira.
- iii. Merkatu laboralaren eta ondasunen gutizietara egotearen ondorioz, norbanakoak egiten duen agerpenak zatiketa, eta ez batasuna, piztu eta bultzatzen du, jarduera lehiakorren alde eginez eta elkarlana degradatuz.
- iv. Pentsamenduaren kolapsoa gertatzen da: etorkizuneko arra-kasta lortzeko, informazio obsoletoa eta ohiturak azkartasu-nez ahaztea komeni da.
- v. Egoera aldakorrek eragindako zalantzak argitzeko ardura norbanakoei dagokie. Gizabanakoari malgutasuna eskatzen zaio, momentuaren aukerak aprobetxatu eta konpromisoak alde batera utz ditzan.

Zalantzarik gabe, bai kulturari eta estetikari dagokien postmo-dernismoak, bai ekonomiari eta gizarte arloari dagokien postmo-dernitateak gure jokabidean eragiten dute, eta, horregatik, hain barneratuta dauzkagun bizimoduaren joerak eta hain gizarteratuta dagoen egitasmoa derrigorrean islatu behar dira literaturan.

Hurrengo ataletako analisi literarioek errealitate etena erakus-teaz gain, hein handi batean, modernitatearen narratiban ezarri-

tako ordena eta sendotasuna historiaren sinesgarritasuna ezbaian jartzen dute eta testuaren bidez errealitatearen distortsioa irudikatzen dute. Nola ez, kontuan hartu behar da errealitatearen kontzeptuak berak dakarrena, ez da errealitatea (behintzat, guk errealitateaz pentsatzen duguna) fikzio bat? Nork idazten du? Norentzat idazten da? Zein baldintzaren pean?: «la cultura trabaja con mucha eficacia para hacer invisible e incluso “imposible” las verdaderas *afiliaciones* que existen entre el mundo de las ideas y la intelectualidad, por un lado, y el mundo de la política bruta, del poder empresarial y estatal y la fuerza militar por otro» (Said, 2008: 200); boterea eta kultura, binomio banaezina. Ezinbestean, testuinguru postmodernoan sortzen ari den kulturari espazioa eskaini behar zaio, ulertzen dugulako literatura beharrezko osagaia dela ekoizpen kulturalean; badaude post-kulturan bizi garela baieztatzen dutenak (Connor, 1996: 51): post-Holocaustoa, post-Humanismoa, post-industrialia, etab. Alde batetik, egoerari nolabaiteko dekadentzia aitortzen, edozein gauza «post» izendatzen da eta, bestetik, postmodernitatea modernitatearen azken ilaretan egoteari uzten dion birsortze bat izango balitz bezala ulertzen da. Hala ere, Jamesonek (1998: 101) uste du kultura ez dela zentzu hertsian esanda fenomeno bat, baizik eta gutxienez bi kulturen arteko irudipen objektibo bat; hau da, inork ez du berez kultura bat. Esan genezake kultura sistema kudeatzailearen pean dagoela eta baliagarria dela orekari eusteko, horregatik, desbideratzea erakusten duen edozein portaera, sistemaren oreka arriskuan jar dezakeena, menderatzen saiatzen da. Hain inuzentea eta inpartzial ez den testuinguru kulturalean literaturaren sorkuntzak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu:

Los efectos políticos de la cultura son el resultado de las formas en que se ha hecho un «uso gubernamental» de ciertos campos específicos de las prácticas culturales. En consecuencia, según esta historia, la cultura es un conjunto de recursos, técnicas, herramientas, conocimientos específicos, programas, tecnologías, que apuntan a manejar a las poblaciones, a cambiar sus hábitos de conducta, de sentimientos, de expresión y de pensamiento (Grossberg, 2012: 208).

## 2. Postmodernismoa euskal literatura garaikidean

Duela urte batzuk euskal literaturaren testuinguruan guztiz zabaldu egin zen postmodernitateari buruzko eztabaida (Aldekoa: 2006; Gabilondo: 2008a, 2008b, 2012; Kortazar: 2003, 2006, 2007; Mercero: 2017; Olaziregi: 2002). xx. mendeko azkeneko hamarkadetan sortutako bizi baldintza eta egoera sozial berriak kontuan izanik, postmodernitateak gizarte globalizatuan utzitako aztarnek zenbait lan literariotan testu postmodernistaren agerpena ahalbidetu dutela ondoriozta dezakegu. Alabaina, helburua adituek erabiltzen dituzten terminoen definizioak edo euskal literaturaren barnean mugatasun historikoak zehaztea izan ez arren, gogoratu behar dira zeintzuk diren testu postmodernistaren baliabideak fikzionatzeko prozesuetan eta, identitatearen kontzeptua beti aintzakotzat hartuta, horietaz egin daitezkeen askotariko irakurketa postmodernistak.

Arestian aipatu bezala, Modernitatearen eta Postmodernitatearen arteko igarobidean, aspalditik, politikan, ekonomian eta kulturaren modernitatearekiko hausturak bestelako jokamoldeak sortarazi zituen. Postmodernitatea mendebaldeko gizartearen jokabidearen aldaketatzat hartzen badugu, nabarmentzekoak dira garaiko adierazpen artistiko askoren egokitza-pena eta momentuko egonezinen isla. Beraz, fikzioak (kasu honetan literarioak) eremu kulturalan nagusitzen diren ziurgabetasunei espazioa eskaintzen die. Era berean, biziraute saiatzen den postmodernismo kulturalaren eta gizartearen politika neoliberalen ondorio zuzena den postmodernitatearen arteko banaketa

azpimarragarria da. Biek elkar eragiten dute, ezin baita ukatu ekoizpen artistikoaren eta sortzen diren momentu historikoaren arteko harremana, hau da, horrelako lanak garaiko gertakizunek zeharkatzen dituzten adierazpen fisikoak dira. Hortaz, eginkizun kultural zehatz bat hizpide hartuta: literatura, nola gauzatzen den eta nola txertatzen den egunerokotasunean aztertzeaz gain, zelan sortzen, aldatzen eta aurre egiten dien boterearen egiturei azpimarratu nahi dugu. Horiek horrela, ikuspuntu kritikoa eskainiz eta 'kultura eta gizartea'ren bikoitzeaz hausnartuz, hainbat diziplinak bat egiten dute.

Joseba Gabilondoren (2008a: 7) iritziarekin bat gatoz argudiatzen duenean «modernitatearen jarauntsiak gure artean oraindik bizirik segitzen duela eta guk nahi baino gehiago itxuratzen eta definitzen gaituela oraindik ere». Postmodernitate-globalizazioaren erdian kulturantzatasuna (multikulturalismoa) ezartzen du; izan ere, kulturantzatasunaren proiektua da haren aldarrikapenatariko bat, eta «Euskal Herrian okupatzen duen leku fantasmatico baina zentrala» (Gabilondo, 2008a: 38) dela defendatzen du. Euskal Herrian multikulturalismoak leku fantasmaticoa okupatzen duela baieztatzean, Gabilondok biopolitikaren eta geopolitikaren arteko desberdintasuna egiten du; oso banaketa aproposa, irakurleak ohartarazteko euskal kulturaren eta literaturaren eredu geopoliticoa gailentzen dela. Ezberdintasunen ugaltzea abiapuntu hartzen dutenek biopolitikaren alde eta, ondorioz, kulturantzatasunaren alde egiten dute, «kulturantzatasuna lekuan lekuko, lokalki, estatu-nazioaren barne eta kanpo negoziatuz (Young, Parekh)» (Gabilondo, 2008b: 43); estatu-nazioari lehentasuna ematen diotenek, ordea, geopolitikaren alde egiten dute. Hurrengo irakurketa egiten du Jon Kortazarrek (2007: 24) postmodernismoa euskal literaturan etengabeko tenka batean agertzen dela baieztatzen duenean:

Tenka bat dago, alde batetik demokrazian eta kontsumo gizartearen oinarrituriko postmodernitate bat, kontsumo gizarte horrekin gustura; eta bestetik, egoera politiko gaizto bat, demokraziaren kontrako mugimenduekin edo demokrazia liberalaren aurkakoeekin behintzat, Euskal Herriko gatazkari irtenbide totalitario bat eman nahirik. Hori dela eta, ez da zaila ikustea zenbaterainoko postmodernitatea daukagun euskal gizartearen. Bi jarrera horiek elkarri topeka sortzen duten tenkaz agertuko da euskal literaturan postmodernitatea; literatura horretan tenka ideologikoa oinarritzko giltzarri bihurtzen da.

Asko dira Euskal Herrian postmodernitatea onartuz gero identitate kolektiboak hankaz gora jarriko litzatekeela pentsatzen dutenak. Beraz, arestian aipatutako modernitatearen eta postmodernitatea-

ren arteko eztabaida euskal literaturan hor dago, eta, esan bezala, zenbait idazlek eztabaida horri lotuta jarraitzen dute. 60 eta 70eko hamarkadetan argitaratutako lehen «nobela-adierazpenek» egoera latzetan egin zuten, eta gehienetan lehiaketek lagunduta. Bi helburu nagusi izan zituzten nobela horiek: batetik, hizkuntza literarioa lantzea, sarritan filologizazioan<sup>4</sup> eroriz. Literatura eskolan sartzea onuragarria izan zen, horrek aukera artistiko gehiago ekarri baitzuen; hala ere, kontuan hartzekoa da euskal idazleak merkatu garatu gabe batean mugitzen hasi zirela, eta, horren ondorioz, merkatuaren baldintzen pean egon gabe idazteko aukera ere izan zutela. Estatu espainiarrean sortzen diren beste literatura txikiekin konparatuta, antzeko ezaugarriak dituztela erakusteko asmoz, Kortazarrek (2007: 53) garaiko hiru tasun orokor aipatzen ditu:

- i. Idazle *boom*-a: 300 bat idazle dira euskaraz idazten eta argitaratzen dutenak sistema koherente batean.
- ii. Idazle belaunaldien arteko bizikidetza. Hiru garaitan bana daitezke idazle belaunaldiak: 1950 inguruan jaioetakoak, 1964koak eta 1975 ingurukoak. Duela urte batzuk idazle gazteen artean ondorengorik ez ikustea kezkaragarria izan bazen ere, 90eko hamarkadan, 1997 aldera, idazle gazte berrien lanak plazaratzen hasi ziren; horrekin batera, ezin ahaztu sortutako literatura motak berekin zekarren ezaugarrietako bat: ezaugarrien ezegonkortasuna. Horretaz gain, idazleen artean hierarkizazio handi bat gertatu zen, bai beren argitaletxeekin zuten harreman estuaren ondorioz, bai beren eragin handiagatik. Horien artean Bernardo Atxaga, Ramon Saizarbitoria, Anjel Lertxundi, Joseba Sarrionandia, Arantxa Urretabizkaia, Koldo Izagurre eta Juan Mari Irigoien gailentzen dira. Idazle horiek sistemaren erdigunea bete zuten, eta urteak pasa ahala aldaketa motel bat gertatzen ari bada ere, oraindik sistemaren erdigunean daude.
- iii. Estetika aniztasuna eta ahots askotarikoak; Kortazarrek Bernardo Atxagaren *Obabakoak* (1988) estetika postmodernoren abiapuntutzat hartzen du liburuaren generoarekin

---

<sup>4</sup> *Diglosia eta euskal literatura* (2002: 57-60) liburuan, Kortazarrek «filologizazioarako joera» aipatzen du. Horren bidez, filologiak erakusten duena hizkuntza diglosikoaren literaturan agertzeko joera garbia hautematen da: «Hizkuntza eta literaturaren arteko jokoan hizkuntzari pisu handia, larregia, ematen zaionean, sortzen da filologizazioarako joera hori».

anbiguotasuna dela eta, eleberriaren eta narrazio bilduma-  
ren ezaugarriak aipagarriak direlako. Ramon Saizarbitoria-  
ren *Egunero hasten delako* (1969) ere postmodernismoaren  
zertzeladen erakusgarria izango zen, batez ere indifere-  
ntziaren zantzuak gehitzeagatik. Euskal giroan, postmoder-  
nismoaren bi gune nagusi desberdintzen ditu Kortazarrek:  
lehenengoa, 1970eko hamarkadaren hasierakoa, non axo-  
lagabetasuna agertzen den, eta bigarrena, 1980ko hamar-  
kadaren erdi aldean agertzen dena eta postmodernitatearen  
ezaugarri estilistikoak gailentzen dira. Narrazio laburren  
zenbait egileri —Iban Zaldua, Javi Cillero— buruz hitz  
egiten duenengan, azpimarratzen du lanetan agertzen diren  
indiferentziaren zertzeladak bizitza hutsalaren aurrean. Hala  
ere, Kortazarrek (2006) berak azaldu bezala, axolagabeta-  
suna modernitateko balio nagusien aurrean azaltzen da, eta  
ez bizitzaren aurrean, hau da, axolagabetasunak ez du esan  
nahi subjektuari dena berdin zaiola, arazorik ideologiaren ar-  
tean aukeratzea ezinezkoa dela baizik. Haren ustetan, sub-  
jektu postmodernoarean eraikuntza memorian ezartzen da  
eta, horren ondorioz, subjektuaren birsortze postutopi-  
koaz, polifonikoaz eta hibridoaz hitz egin genezake; gogora  
bedi arestian subjektu-ugaritzearen agerpena postmoder-  
nitatearen ezaugarritzat hartu dugula. Postmodernitatea-  
ren ikuspegi filosofiko eta politikotik literaturaren alorrera  
pasatzean, Kortazarrek (2007: 15-21) jasotzen dituen osa-  
gaiak: pluralismo estilistiko eta politikoa (ez dago estilo ba-  
karra errealtatea adierazteko), konstruktibismoa (amaitu  
dira mimetismoa eta errealismoa), testuartekotasuna eta  
polifonia, anakronismoa, narratzailearen agnostizismoa  
(ezinezkoa da egia adieraztea; orduan, kontatutakoaren au-  
rrean mesfidantza agertzen da), generoen arteko muga ga-  
lera, ziorik gabeko idazkera (abangoardiak alde batera uzten  
ditu), alienazioa eta bestetasuna, indiferentzia eta trukaga-  
rritasuna (balio moralaren erlatibitatea), irakurlearen aurki-  
kuntza, eta izadiaren aurkezpen ideologikoa.

Iñaki Aldekoaren (2006) lanari erreparatuz gero, euskal literatu-  
ran postmodernitateak nolako eragina izan duen aztertzen du: haren  
ustez, xx. mendeko azken hogeita bost urteek ez zuten inolako zan-  
tzu postmodernorik. Lehenengo eta behin, ekonomia esparruari hel-  
tzen dio, garaiko Euskal Herriko testuinguru ekonomikoa Fredric  
Jamesonek (1996) esandakoarekin konparatuz; azken horrek post-

modernitatea kapital multinazionalaren fasearekin identifikatzen du. Aldekoak, ordea, euskal testuinguru ekonomiko eta kulturalean nekez ikusten du paralelismoa, eta, Euskal Herriko industria zaharrak jasan behar izan zuen birmoldatzea gogora ekartzen duenean, ekonomia globalizatuaren garaia 90eko hamarkadan kokatzen du. Bigarrenik, diskurtso politikoan finkatzen du arreta, modernitatearen idearioan nagusi izan ziren utopia eta askatasun soziala eta nazionala aipatuz: «Modernitatearen paradigma horren aurrean, postmodernitateak utopiaren eta historiaren [...] ahultze bat dakar, historiaren sekularizatzeko bat. Gauzak horrela, arrazoimenaren eta eskabide historiko tradizionalen alboan, ordu arte ikusezinak ziren errealtate berriak plazaratuz joango dira: «gutxiengo etnikoak, gutxiengo sexualak, ekologia, emakumeen mundua eta abar» (Aldekoa, 2006: 143). Gaur egunean, ezkerreko diskurtso kultural hegemonikoak indarra galdu badu ere, Aldekoak ez du uste 80ko hamarkadako utopia, iraultza eta antzeko balioak krisian sartu direnik; aitzitik, modernitatea gaingintzeko aukera arkitekturaren eskutik heldu zitzaigun 90eko urteetan, Guggenheim museoarekin, eta, harrezkero, postmodernitatearen eragin nabarmena kultur alorretan baino gehiago, jardun ekonomiko berrietan islatuko zen; esan gabe doa ohitura sozial horiek eragin itzela izan zutela literatura-sistemaren baitan. Bernardo Atxaga eta Ramon Saizarbitoria aukeratzen ditu 1975-2000 urte bitartean euskal nobelagintzak izandako bilakaeraz hitz egiteko. Haren ustetan, 82tik aurrera euskal literaturan konpromisoak pisu handia zeukan, eta 90eko hamarkadan ere izugarritzko protagonismoa izaten jarraitu zuen: «Honekin guztiarekin esan nahi dudana hau da: iraultzak, utopiak eta gure herrian indarrean zeuden ETArekin borroka harresi irmoa ezarria ziotela ahultasun, bigunkeria, arintasun, erraztasun, kontsumo eta, hitz batean esateko, MERKATUAREN sarearekin kateatzen zen ikuspegi salduari»<sup>5</sup> (Aldekoa, 2006: 153).

Olaziregiren (2002: 94) ustez, literaturaren arloan, 'denak balio du' aldarria berreskuratzen du postmodernismoak, literatura onaren eta txarraren arteko mugak lausotu ez ote diren hausnarketa eginez modernitate osteko eleberrigintza aztertzen du: «argi dago[ela]

---

<sup>5</sup> Nire ustez, azalpen horren bidez, Aldekoa 2000. urteko literatura ezaugarritzen saiatzen da, eta, bide batez, postmodernitateak eragindako balore ustelkeria eta literaturak jasandako txarrerako alaketak agerian uzten ditu. Hala ere, Aldekoak berak arestian aipatutako «ikusezinak ziren errealtate berriak» islatzen dituen literatura ere sortuko da gurean, idealismorako bidea beste ikuspuntu batetik irekiz eta bestelako iraultzak eta utopiak marraztuz, non Bestetasunari (*Otredad*) lekua egiten zaion eta nazionalismoak kosmopolitismoari tokia uzten dion.

jakintza-arlo desberdinetan gailenduz joan den hausnarketa honek [postmodernitateak] arrazionaltasunean, aurrerapenean, historizitatean, gizabanakoaren autoritatean... sinesten zuen mundu modernoak gaindituta dagoela adierazten digula». Egileak aitortu bezala, askotan idazleen ibilbideak eleberri-tipologia bat atxikitzea zailtzen du; hala ere, azken hamarkadetako eleberrigintzaren sailkapen tipologikoa ezartzean, sailkapen tematiko-formalari ekiten dio argudiatur subjektibitatea lantzen duten eleberriek narratzailearen barne mundua daukatela hipotesi. Gaur egungo zenbait eleberri errealistak, ordea, munduari begiratzen diote eta mimesi modu subjektibo bat proposatzen dute. Hortaz, errealismo subjektiboa presente dauka, eta, berak esandakoa parafraseatuz, hizkuntza literarioa hainbat irudiz hornitzen da, dela oroimenaz baliatuz, dela amets edo irudimenaz baliatuz, dela egungo gizartearen ohitura berrien aurkezpen naturalista ginez.

Ezin da bukatu ibilbide hau euskal literaturaz eta postmodernismoaz ikertu duen azken adituaren berri eman gabe: 2017an Gorka Mercero *Mundu-ikuskerarak euskal narratiba garaikidea: modernitatearen krisitik postidentitatearen promesera* liburua idazten du. Horretan euskal narratiba garaikidearen eboluzioaren ibilbide anitzak aztertzen dira mundu-ikuskera zabala ardatza hartuta. Horiekin batera, egileak zalantzan jartzen ditu artea, maitasuna, nazioa eta antzeko kontzeptuak postmodernismoaren inguruko hausnarketak berreskuratuz eta berrirakurritik. Hala, modernitate eta postmodernismoaren arteko harremana «espazio vs. denbora» oposizioak (Mercero, 2017: 35) biltzea da helburua. Hasteko, Mercero *Obabakoak* (1988) eleberriaren irakurketa eskaintzen du antiesentzialismo postmodernistaren ikuspuntutik: «Izan ere, esentzien ordean errealtateak berezkoak dauzkan gune zehatzezin eta erabakiezinak lausoak zaizkie arrazoimenaren argiei» (Mercero, 2017: 49). Ni poetikoaz hausnartzean euskal narratiba garaikidea osatzen duten zenbait lan aukeratzen dira eta sorkuntzan eratutako nitasunaren atalean, Mercero ni poetiko premodernista aipatzen du Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* (2008) nobelaz baliatuz. Ni poetiko modernista Anjel Lertxundik idatzitako *Carla* (1989) eleberrian topatzen dugu eta ni poetiko postmodernista, al-diz, *Obabakoak*-en «Azken hitza» zatian kokatzen da, postmodernismoan «hitz esentzial eta erabakiorrik, azken hitzik existitzen ez denez, narratzailea hasiera-hasieratik zegoen huts egitera kondenatuta» (Mercero, 2017: 71).

Bigarrenik, amodioan eratutako nitasunari dagokionez, ni erotikoa aztertzen da eta ni erotiko premodernista Ramon Saizarbitoria-

ren *Rosseti-ren obsesioan* (2001) sartzen da; Laura Mintegiren *Sisifo maite minez* (2001) eleberria ni erotiko modernistaren eredua dago eta, azkenik, ni erotiko postmodernista Joxemari Iturrualderen *Izua hemen* (1989) nobelan, Merceroren iritziz, funtsezkoa dena maitasun postmodernista zertan datzan mugatzeko. Hirugarrenik, kontzientzian eta konpromisoan eratutako nitasunaz gogoeta egiten du egileak eta, horren bidez, ni politikoari erreparatzen dio. Ni politiko premodernista Koldo Izagirreraren Metxaren pertsonaian islatzen da eta ni politiko modernista, ordea, Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* (1995) lanean agerian dagoen nazioarekiko konpromiso politikoa. Ni politiko postmodernista Joseba Sarrionandiak argitaratutako *Lagun Izoztua* (2001) nobelako protagonistak irudikatzen du. Ikuspuntu horretatik corpusaren analisia egin ostean, Mercero (2017: 123) berreskuratzen du hasierako proposamena: «... postmodernismoa azken batean antiesentzialismo modura ulertzea», eta argudioa indartzeko postmodernismoa errealitate-irudikapen edo mundu ikuskeratzat hartzen du. Bestalde, gure laneko lehendabiziko orrialdetan jasotzen dugun baieztapenaren aurrean, hau da, azken hamarkadetan egoera ekonomikoak gizartearen maila eta eremu guztietan aldaketa sakonak eragin ditu, Mercero alde batera uztea erabakitzen du. Hala ere, bat gatoz Merceroekin adierazten duenean mendealdeko kulturaren zabalduetako axolagabekeria nagusi dela pentsamendu zein ekintza politiko utopikoen aurrean. Edozelan ere, azken urteetako euskal narratiban zenbait joera estiliskoren artean diskurtso berritzaileak eta kritikoak sortu direlakoan gaude.

Beraz, orain arte aipatutakoa eta hainbat adituren teoriak go-goan eduki, esan gabe doa postmodernitatea gurean instalatuta dagoela eta gaur egungo euskal literaturan postmodernismoaz argi eta garbi hitz egin daitekeela; horregatik, postmodernismoaz konplexurik gabe mintzatzen hasi beharko ginatke. Euskal eleberrigintzaren has-tapenetan idazleek beste herrialdeetako joera estetikoak jaso zituzten: ezin dugu ukatu Txomin Agirreren ohiturazko eleberriak Europan garatu zen erromantizismoaren kutsu kontserbatzailea duenik; berdin esan genezake Jose Luis Enparantza 'Txillardegiren lehenengo eleberri modernoaz, eleberri existentzialistaz, dakigunez, Frantziatik hedatutako filosofiaren eraginaren ondorioa; edo Ramon Saizarbitoriak erabilitako *nouveau roman* mugimendu literario berritzailea euskal narratiban eta esperimentalismotik jasotako tasunak; baita Bernardo Atxagaren lanen abangoardien eragin zuzena ere. Horrekin guztiarekin esan nahi dugu euskal narraziogintzan (eta beste genero literarioetan ere bai), euskal sistema literarioa osatzen hasi zenetik, kanpotik hartutako iturri estetikoak ezinbestekoak izan direla.

Esparru literarioetan elkar ukitzen duten joera estilistikoak harremanetan bizi behar dira, elkar sustatuz edo bestelako estiloak eta joerak ezagutuz eta onartuz, horrela isolamendua saihesten delako. Era berean, euskal literaturaren historiari ere begiratzen badiogu, nabarmentzekoa da korronte literarioen izendapenak testuinguru europarrean xx. mendeko korronte estetikoek dituzten berdinak direla. Halaber, Europako mugimenduen oinarri estilistikoak eta ideologikoak eragin zuzena izan dute periferian kokatuta dagoen euskal literaturaren garapenean (Kortazar, 1990). Zilegi da argudiatzea postmodernismoak besteek egindako ibilbide bera jarraitu duela; hau da, azken hamarkadetan mendebaldeko gizarteetako aldaketen eraginez eta modernitatearen baliabideak aldaketa horiei aurre egiteko gauza ez zirenez, postmodernismoak bere espazioa topatu du zenbait lan literariotan eta garaiko adierazpen kulturaletan. Euskal literaturan garatu diren beste estetikak bezala, postmodernismoa, beste herrialdeetako garapen literarioarekin alderatuz gero, berantiarra da, baina horrek ez du esan nahi bere lekua lortu ez duenik euskal sistema literarioan. Alabaina, argi geratu behar da abangoardiaren eta postmodernismoaren arteko desberdintasun nagusia, sarritan teorizazioak haien arteko nahasmena bultzatu duela: abangoardiak berrikuntzaren bila dabiltza, helburua suntsitzea da, berriro sortzeko; postmodernismoaren jarrera, ordea, sortutakoa berrerrabiltzea da, xurgatzea eta birziklatzea.

Gogora dezagun mende berriarekin, pentsamendu kartesiarraren, arrazionalismoaren eta metafisikaren urteak atzera geratu direla eta aniztasuna, dekonstruzioa, kulturantzatasuna eta diferentzia protagonismoa hartzen hasi direla; ikerketa sakonago bat eskatuko luke jakiteak oinarri horiek nola kudeatzen diren bai gizarte mailan bai instituzioetan, hala ere, tenka garbi baten aurrean gaudela esan genezake, izen beraren bi aurpegi ditugulako. Hau da, bi postmodernismo mota daudela baieztatzea ausart gintezke: lehenengoan, axolagabetasuna eta arinkeria nagusitzen dira eta sistemaren esanetan dago. Aldiz, interesatzen zaiguna postmodernismoaren bigarren aldaera da postmodernismo kritikoa delakoa, erresistentzia-espazioa eskaintzen duena diskurtso kritikoak eraikitzeak aukera emanez. Izan ere, aztertuko ditugun testuek postmodernismoaren gizarteak eskaintzen dituen askotariko ikuspegietatik gizabanakoaren krisiaz jarduten dute horrek dakarren konplexutasuna bideratu nahian.